



Euskadiko Lehendakaria

El Lehendakari de Euskadi

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abendua

Kanpoan bizi zareten euskaldun estimatuak:

2021ean, iaz bezala, COVID-19aren pandemiak gure bizitza baldintzatzen jarraitu du. Birusari aurka egiten ari gatzazio eta lortzen ari gara pixkanaka hari aurre egitea, ahalegin handiz eta eraginkortasunez. Nire lehen hitzak hildako pertsonak gogoratzeko dira, baita haien senideak ere: Gasteizko Sempervirens Parkean aurkituko dute joan direnen memoria ohoratzeko lekua.

Gure lehentasuna, joan den urtean bezala, osasun publikoa bermatzea da. Oraindik ez dugu mendean hartu birusa, baina mutazio berri bakoitzarekin, olatu berri bakoitzarekin, tresna berriak sortzen ari gara pertsonen osasuna eta bizia babesteko. Pandemia hasi zenetik ia bi urte igaro direnean, arazoak arazo, lortu dugu berreskuratzea pertsonen arteko harremana, eskola presentzialak, jarduera ekonomikoaren zati handiena, kultura, aisia edo joan-etorriak. Eusten ari gatzazio, eta, aldi berean, geure burua prestatzen ari gara Euskadiri bultzada berri bat emateko gizarte eta ekonomia alorretan. Hauxe da denok partekatzen dugun funtsezko ideia: inoiz ez gara gelditu eta inoiz ez gara geldituko.

Horren erakusgarri dugu irailaren 8a, Diasporaren Eguna. Egun horretan, indarrez eta irudimenez beteriko jarduera programa zabal baten bueltan batu ginen milaka euskaldun mundu osoan barrena. Egun horretan jabetu ginen gure Herriak munduan duen presentziaz eta oihartzunaz. Duela 30 urte, Euskal Komunitate batez mintzo ginen, eta gaur egun Komunitate Global bat osatzen duten komunitateez mintzo gara. Gure desafio nagusia da Euskal Komunitate Globala artikulatzen laguntzea, denontzako aukera bihurtzea.

Geure burua hobeto ezagutzea, horixe dugu lehenengo urratsa. Gure nahia da euskal jatorria edo sentimendua duten pertsona guztiekin konektatzea, sare bat sortzea, gogoia zabal, denei entzunez. Helburu horri begira, martxan jarri dugu Euskal Diasporari buruzko unibertsitate graduondokoa, eta «*Diasporen eta harrerako herrialdeen arteko harremanak: migrazio berriak, itzulera mugimenduak eta testuinguru historikoa*» izeneko Nazioarteko Konferentzia egin dugu, 17 herrialdeko ordezkarien partaidetzaz.

Helburu hori bera betetzeko, «*Han Hemen - Basque Global Network*» sare soziala sortuko dugu, munduan barreiatutako Euskal Komunitate osoan informazioa, ideiak, esperientziak, eskaerak edo beharrak partekatzeko plataforma digital berria.

Alde horretatik, urte berriak balio sinboliko handia izango du gure Diasporarentzat. 1936an, Agirre lehendakariak Parisko Euskal Ordezkaritza zabaldu zuen, Ameriketako euskal komunitateen dirulaguntzaz prezeski. 1979an itxi zuten, Leizaola lehendakaria 43 urteko erbestealditik itzuli zenean. Aurten, Eusko Jaurilaritzak Parisko Ordezkaritza berria zabalduko du, beste mugarri bat izango dena munduan barrena zabalduko ordezkariak sarean (Madril, Brusela, New York, Mexiko Hiria, Santiago, Bogota eta Buenos Aires).

Beste urrats bat egingo dugu Euskadiren nazioartekotzean: «*eman ta zabal zazu*». Denok ditugu sustrai berak eta helburu bera: Euskadik munduan hazten jarraitzea. Egun hauetan, itxaropen hori gogoan, urte berri oparo eta emankorra opa diot Euskal Komunitate osoari.

Bihotz bihotzez, Gabon zorientsuak igaro ditzazuela eta Urte berri on!

Iñigo Urkullu Renteria